


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Boletín 4. Buletina

Año 2022. Urtea

**Aniztasun funtzionalera hurbilduz
genero perspektiba intersekzionaletik**

/

**Acercándonos a la diversidad funcional desde
la perspectiva de género interseccional**



ISSN: 2952-1254



gandere

Laugarren buletinak “Aniztasun funtzionalera hurbilduz genero perspektiba interseksionaletik” izena dauka. Buletinaren helburua izan da aniztasun funtzionala duten emakumeen inguruko ikerketak, esperientziak eta baliabideak ezagutzea eta jendartearen eskura jartzea.

GANDERE Taldeak, lagungarriak izan daitezkeen baliabide eta ikerketak identifikatu, sustatu eta hedatu nahi ditu hezkuntza testuinguru desberdinetan: eskolan, familian, mediatikoan eta sozialean.

Laugarren buletin honetarako Mentxu Arrieta Ormazabal, Vanesa Plaza Mendaña, Vanesa Lancha Villamayor eta Rosa Ugalde Urbistondoren ekarpenak jaso ditugu. Mentxu Arrieta Ormazabalek aniztasun funtzionala duten pertsonen sexualitatea aztertu du eta berarekin egindako solasaldia jasotzen du buletinak. Ondoren, bi ikerketen berri ematen da; Vanesa Plaza Mendañak desgaitasuna duten emakumeen egoera ikertu du, bere anai-arreben ikuspegitik eta Vanesa Lancha Villamayorrek autismoa duten ikasleen hezkuntza sexualaren garapena aztertu du, generoaren aldagaien fokua jarritz. Azkenik, Rosa Ugalde Urbistondok ELKARTU elkartearen gaitan lanaren berri eman digu.

El cuarto boletín se titula “Acercándonos a la diversidad funcional desde la perspectiva de género interseccional”. El objetivo del boletín ha sido conocer y poner a disposición de la sociedad estudios, experiencias y recursos en torno a las mujeres con diversidad funcional.

El Grupo GANDERE pretende identificar, promover y difundir recursos e investigaciones de apoyo en los diferentes contextos educativos: escolar, familiar, mediático y social.

Para este cuarto boletín hemos recibido aportaciones de Mentxu Arrieta Ormazabal, Vanesa Plaza Medaña, Vanesa Lancha Villamayor y Rosa Ugalde Urbistondo. Mentxu Arrieta Ormazabal analiza la sexualidad de las personas con diversidad funcional y recoge su charla. A continuación, se da cuenta de ambos estudios; Vanesa Plaza Medaña ha investigado la situación de las mujeres con discapacidad desde la perspectiva de sus hermanas y Vanesa Lancha Villamayor ha analizado el desarrollo de la educación sexual del alumnado con autismo, poniendo el foco en la variable de género. Por último, Rosa Ugalde Urbistondo nos cuenta el trabajo que realizan en la asociación ELKARTU.

Autoretza / Autoría:
Nahia Intxausti-Intxausti;
Esther Uria-Iriarte;
Sandra Rodríguez-Miguel;
Ianire Larrazabal-Arrieta;
Eider Yarza-González.

ISSN: 2952-1254

GANDERE Ikerketa Taldeak Donostian argitaratutako buletina. Informazio gehiagorako:

Boletín editado en Donostia-San Sebastián por el Grupo de Investigación GANDERE. Para más información:

gandere@ehu.eus
www.ehu.eus/gandere
www.gandere.eus



Conversando con Mentxu Arrieta Ormazabal



Doctora en psicología, sexóloga, criminóloga, una de las creadoras del método de comunicación Arrieta, poeta, escritora, actriz de clown, bailarina de flamenco... Ella es Mentxu Arrieta Ormazabal, aprendiz insaciable de todas las oportunidades que le ha brindado y le brinda la vida.

Siendo el tema principal del boletín la diversidad funcional y el género, buscamos mujeres con diversidad funcional a las que poder entrevistar para conocer sus vivencias

respecto a la doble discriminación que supone ser mujer y tener diversidad funcional en la sociedad actual. Ahí es dónde nos topamos con Mentxu Arrieta. La conocemos gracias a Esther Uria, quién conoce a Mentxu por haber asistido junto a ella a clases de flamenco, pero ¿Quién es Mentxu Arrieta?

Pensamos que podría ser una buena idea entrevistar a Mentxu con el fin de conocerla más, por lo que decidimos crear una serie de preguntas basándonos en la información que encontramos sobre ella en la red. Una vez habiendo dado forma a la entrevista, le propusimos a Mentxu nuestra idea, a lo que ella nos respondió rompiendo nuestros esquemas. Así, Mentxu nos propuso dejar de un lado la entrevista y juntarnos para hablar entre nosotras, dando lugar a un encuentro interactivo en el que dialogar sobre la mujer, la diversidad funcional, la sociedad actual... siendo ella quién nos hiciera a nosotras las preguntas, y no siendo ella el foco de atención. Sorprendidas, pero sin dudar, aceptamos.

Gracias a la propuesta de Mentxu vivimos un encuentro agradable y caluroso, acompañado de café y bizcocho en el que dialogamos, reflexionamos, aprendimos y desaprendimos entre todas, conversando desde las experiencias y vivencias de cada una. Creamos así un espacio de aprendizaje y reflexión improvisado, en el que salieron a la luz diversos temas como el peso de la mirada de las personas sobre nosotras mismas. Es decir, la forma en la que nos construimos a través del otro, una retroalimentación que no cesa, que es constante y en muchas ocasiones marcada por una sociedad patriarcal que emana pensamientos y creencias muy diversas. Independientemente de si tienen una connotación negativa o no, o si provienen de una mujer o un hombre, parecen ganar el mismo peso cuando estas provienen de nuestros seres queridos. Por el contrario, a la hora de adquirir roles de liderazgo o situarnos en un entorno profesional, es la mirada del hombre la que al parecer nos hace sentirnos cuestionadas o juzgadas con mayor frecuencia y/o facilidad.

Por otro lado, abordamos el tema del lenguaje y la comunicación, ya que el lenguaje es un instrumento envuelto por los estereotipos de género como “el llorón o el flojeras” en el caso del hombre que se emociona o “la que esta con la regla o la amargada” en el caso de la mujer que protesta. Sin embargo identificamos que la figura de la mujer puede ser degradada con mayor facilidad en situaciones en las que ambas partes realizan una misma actividad o se sitúan en un

mismo nivel; por ejemplo, consideramos que un grupo de discusión compuesto por mujeres es más fácil que sea tachado de “gallinero”, mientras que un grupo de discusión compuesto por hombres es más fácil que sea reconocido como un debate, percibiendo la sensación de que se les permite comunicarse de una forma a unos y de otra forma a otros. Así, llegamos a la conclusión de que el género es un factor incidente en la libertad de expresión.

En esta misma línea consideramos el cuerpo humano como medio de expresión; como dijo Esther “tenemos que dejar más protagonismo al cuerpo, a la expresión, al que sea el cuerpo también medio de expresión, porque es el cuerpo también el que expresa las emociones, lo que está ahí”. De ahí que Mentxu nos contase sus experiencias en *clown* y flamenco, ambas experiencias merecedoras de ser escuchadas y reflexionadas, donde la fuerza interna de Mentxu y su actitud provocadora, sin duda, fueron las protagonistas. Sin ningún tipo de tapujos, dio luz a ambas caras de una misma moneda, cómo todo comenzó por un curso en el que se apuntó por mera curiosidad, ella quería conocer y saber qué era *clown*. En un principio señaló que tanto el alumnado como el profesor no daban crédito, le preguntaron “¿Qué vas a hacer aquí?, ¿Qué voy a hacer aquí? Lo que pueda, ya está, voy a hacer lo que pueda y no hay más, como va a hacer cada uno de vosotros” (Mentxu). Así comenzó todo, disfrutaron tanto que fundaron un grupo y llevaron a cabo varias obras, las cuales las

recuerda con una gran sonrisa en el rostro. Recalca haber aprendido ¡mogollón! y considera que su presencia también enriqueció al grupo, aunque no todas las anécdotas las recuerda con la misma ilusión, ya que también, tuvo que sobrellevar alguna situación de exclusión. En uno de los cursos en el que se apuntó, el profesor no la dejó participar, pero ella optó por disfrutar de cualquier forma, aunque tuviese que ser mediante la observación. Confesó haberle dolido en el alma dicha actitud y, aunque el resto compañeros y compañeras nunca mostraron estar de acuerdo con la decisión que tomó el profesor, nunca nadie dijo nada, lo cual ella creía ser por miedo a represalias.

Otra de sus muchas anécdotas fue su experiencia en flamenco, de la cual fue testigo Esther “Mentxu era un ente provocador realmente... se lanzaba al suelo sin ningún complejo”. También aquí fue testigo del resto de las miradas de las personas, las cuales en muchas ocasiones transmitían pena, y a las que les costaba comprender lo que estaba sucediendo frente a ellas. Mentxu considera que “cada persona tiene su tiempo para digerir, incluso no puedes pedir que todo el mundo lo haga al mismo tiempo, hay que dejar tiempo”. Para Mentxu el tiempo es vital, siente que vive dentro de un sistema que no le gusta nada, en el que la figura del profesorado, las madres y los padres son vitales para avanzar y luchar por una sociedad digna y con sentido de justicia social. Recalca cinco preguntas clave en el camino

hacia la igualdad "Yo me cuestionaría lo que estoy haciendo, por qué lo hago, para qué, por quién y cómo, son preguntas muy básicas, que siempre las dejamos ahí, ah eso ya está, y no, no está resuelto", preguntas mágicas que nos pueden ayudar a hacer nuestra propia autocrítica, y es que como dice Mentxu "Hay que hacerlo con cariño, a veces nos fustigamos. Podemos hacer poco, pero ese poco ya es algo, no vamos a poder cambiar el mundo, pero sí un poquito".

De esta forma concluimos una tarde de charla entre amigas, al mismo tiempo de conocer a Mentxu, nos conocimos un poco más a nosotras mismas. Por ello, sólo nos queda darte una vez más las gracias, por compartir con nosotras tu visión sobre la vida misma, tus fortalezas e inseguridades, tus experiencias en esta sociedad que nos envuelve, ha sido un placer conocerte y conocernos juntas.

**Ver VIDEO*

Referencias

- Arrieta-Ormazabal, M. (2010). Diversidad funcional física y sexualidad. *Revista Española de sexología*, 159, 1-82. <https://www.sexologiaenincisex.com/extractos-de-la-revista-espanola-de-sexologia/diversidad-funcional-fisica-y-sexualidad>
- Gil-Munárriz, J. (2013). *El Método Arrieta*. Moriarti Produksioak. <https://www.elmetodoarrietafilmm.com>

Adimen-desgaitasuna duten emakumeak, anai-arreben begiradatik

Adimen desgaitasuna eta emakumeak, aniztasun funtzionala eta generoa. Bi diskriminazio iturri dira hauek, eta biak pairatzen direnean diskriminazio bikoitza deritzo. Aniztasun funtzionalaren barnean adimen desgaitasuna da zaurgarritasun egoera handiena suposatzen duen desgaitasuna; haatik, gaur egun adimen desgaitasuna duten emakumeen egoera espezifikoaren inguruko informazio falta handia dago. Gauzak horrela, Vanesa Plaza Mendañoren Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia adimen desgaitasuna duten emakumeen egoera ikertu eta ikustaraztea da, oztopo sozial zein genero desberdintasunei dagokienez. Horretarako, adimen desgaitasuna duten emakumeek bizitzako arlo desberdinetan (hezkuntza, enplegua, harreman sozialak eta parte-hartze soziala, bizitza independentera sarbidea eta autonomia, amatasuna, sexualitatea eta indarkeria) bizi duten errealitatea ezagutzera ematen du Vanesak, adimen desgaitasuna duten pertsonen anai-arreben ikuspegitik.

Ondorengo ikerketa galderek gidatzen dute ikerketa lan deskriptibo hau: Adimen- edo garapen-desgaitasuna duen emakumea izateak zenbateraino eragiten du prestakuntza, eplegu edo hezkuntza sexueralako sarbidea eskuratzeko aukeratan, desgaitasun intelektuala duten gizonen eta beste desgaitasun bat duten edota desgaitasunik ez duten gainerako emakumeen aldean? Desgaitasun intelektuala duten emakumeak zer puntutaraino daude desabantaila egoeran beste kolektibo sozial batzuen aldean?

Ikerketa galdera horiei erantzun nahian zein gaiaren inguruko informazioa biltzeko adimen desgaitasuna duten pertsonen 23 anai-arrebari galdetegi bat pasatu zaie. Era berean, bi emakumeri

elkarrizketak egin zaizkie, zeinak desgaitasun mota hau duten anai-arrebak dituzten.

Bere emaitzen artean azpimarratzeakoak dira, batetik, generoak adimen desgaitasuna duten pertsonen anai-arrebenganako harreman inplikazioari dagokionez duen indarra. Izan ere, gehienbat arrebak desgaitasuna duten ahizpa-anaien zaintzaren arduradunak, generoa eta zaintzaren arteko lotura dela eta.

Bestetik, adimen desgaitasuna duten pertsonak bestelako desgaitasunak pairatzen dituzten pertsonak baino diskriminazio eta zaurgarritasun egoera handiagoa sufritzen dutela egiaztatu da, bai gizartearen aldetik eta baita familien aldetik ere, gain-babesa dela eta. Gain-babesa normalean desgaitasun mota hau duten emakumeei aplikatzen zaie, gizonezkoei baino gehiago. Hots, adimen desgaitasuna duten gizonak zaurgarritasun egoeran aurkitzen badira ere, desgaitasun hau duten emakumeen egoera are zaurgarriagoa da, hauek oztopo sozial gehiago bizitzen baitituzte gizarte patriarkal honen ezaugarri den genero desberdintasuna dela eta. Oztopo hauek bizitzaren arlo ezberdinetan eragina dute, hala nola, hezkuntzarako sarbidea, enplegurako sarbidea, harreman sozialak, bizitza independentea eta autonomia, besteak beste.

Gauzak horrela, zerbitzu publikoetarako sarbidea adimen desgaitasuna duten pertsonen jasaten duten desperekotasun

egoeraren adibide esanguratsua da, izan ere, kasu askotan zerbitzu publikoak ez daude adimen desgaitasuna duten pertsonentzat egokituak, eta horrenbestez, ez dira hauentzat kalitatezkoak suertatzen. Zerbitzuetan eta baita gizartean ere, berdintasun-tratua behar da.

Hezkuntza-eremua kontuan hartuta, adimen desgaitasuna duten pertsona gutxi lortzen dute goi-mailako hezkuntza-titulu bat, eta, kasu batzuetan, egoera hau etsigarria da hauentzat. Hala ere, elkarrizketetan eta galdetegietan parte hartu duten anai-arreben ustez, adimen-desgaitasuna duten emakumeentzat hezkuntza sarbidea are zailagoa da gizonentzat baino, Europar Batasuneko Desgaitasuna duten Emakumeen eta Nesken Eskubideen 2. Manifestuan (Naciones Unidas, 2011, apud Plaza-Mendaño, 2020) nabarmentzen den bezala. Aldi berean, anai-



arrebek beharrezkoa ikusten dute hezkuntza adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat kalitate handiagokoa izatea, haien gaitasunak sustatzeko.

Enpleguaren eremuan, adimen-desgaitasuna duten gizonen kopurua handiagoa da enplegua bilatzeko asmoa duten edo izan duten emakumeekin alderatuta (Plena Inclusión, 2018, apud Plaza-Mendaño, 2020); hala, emakumeak gutxiagotan sartzen dira ondoren laneratzeko aukera ematen duen prestakuntza-ibilbide bat egitera. Egoera batzuetan, familia-sareek ez dituzte adimen-desgaitasuna duten emakumeak lana bilatzeko animatzen, honek zaildu egiten duelarik emakumeen ekimena lana bilatzeko orduan. Aldi berean, elkarrizketetan, agerian geratzen da, adimen-desgaitasuna duten pertsonen kolektiboaren aldetik sexismoa ematen dela lanean.

Gizarte-harremanei dagokionez, ikusi da, oro har, adimen-desgaitasuna duten pertsonen zailtasunak dituztela gizarte-harremanak ezartzeko, eta emakumeen parte hartze soziala (lagunekin irteerak, kultur ekitaldietan parte hartzea...) gizonezkoena baino txikiagoa da.

Bizitza independentea eta autonomia eskuratzeari dagokionez, azterlanean ikusi da desgaitasun intelektuala duten gizonen kasuan desplazamendu autonomoa handiagoa dela hiritik edo komunitatetik, emakumeena baino. Izan ere, adimen desgaitasuna

duen emakumeen autonomia-falta, hauek bizitza independentea lortzeko dituzten zailtasunetan oinarritzen da. Ikerketa honen arabera, zaila da emakumeek bizimodu independentea izatea, baldin eta, euren anai-arrebek euren izenean erabakiak hartzen badituzte, zeren eta honek emakumeen autonomia zailtzen du (Plena Inclusión, 2018, apud Plaza-Mendaño, 2020). Horrez gain, aipatzekoa da anai-arrebek erabaki gehiago hartzen dituztela desgaitasun intelektuala duten emakumeen izenean gizonen izenean baino, eta hori orain arte ez zela esplizitatzen aurretiazko ikerketetan.

Ildo beretik, nabarmendu behar da adimen-desgaitasuna duten pertsonen anai-arrebek uste dutela adimen-desgaitasuna duen gizon batek aukera gehiago dituela, kolektibo bereko emakume batek baino bizitza independentea izateko. Horrez gain, sexualitatea zein hezkuntza sexualaren arloan hobetzeko asko dagoela ondoriozta daiteke ikerketa honetan. Izan ere, kasu askotan hau ez dago egokitua adimen desgaitasuna duten pertsonentzat, eta horrenbestez, askotan ez da irisgarria. Oso beharrezkotzat jotzen delarik hezkuntza sexualaren prestakuntza familietan eta erakundeetan, izan ere, gai hau oso gutxi lantzen da. Ildo beretik, bikote bizitza, amatasuna eta aitatasunaren arloei dagokionez esan beharra dago hau lantzen ez den arloa dela, desgaitasuna duten pertsonak bikotea izatea edota amak edo aitak izatea ez baita kontenplatu gaur egungo gizartean.



Indarkeria eta zaurgarritasun-egoerei dagokienez, adimen desgaitasuna duten emakumeek arrisku handiagoa dute desgaitasun intelektuala duten gizonek baino. Batetik, emakumeak direlako, eta, bestetik, desgaitasun intelektuala dutelako.

Horrenbestez, ikerketaren ondorio nagusia da, adimen desgaitasuna duten emakumeak desabantaila egoeran aurkitzen direla arlo guzti hauetan, desgaitasun mota berdina duten gizonen aldean, zein beste desgaitasun mota bat edo desgaitasunik ez duten emakumeen aldean.

****BIDEOA ikusi***

Erreferentzia

Plaza-Mendaño, V. (2020). *Mujeres con discapacidad intelectual: Multidiscriminación y desigualdad de género desde la perspectiva de sus hermanos y hermanas*. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/50587>

Perspectiva de género en el desarrollo de la sexualidad de las personas con TEA

Vanesa Lancha Villamayor, Graduada en Pedagogía y Doctoranda en Ciencias de la Educación, es investigadora en el Departamento de Ciencias de la Educación en la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología (HEFA) de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). Su línea principal de investigación es el análisis de la Educación Sexual en personas con diversidad funcional, especialmente en personas con Trastornos del Espectro Autista (TEA), con la finalidad de identificar y difundir buenas prácticas educativas que fomenten la equidad y la inclusión.

Los TEA se caracterizan por una condición multidimensional en la que la persona destaca por un perfil propio, definido por las características individuales en cada dimensión de la triada: interacción social, lenguaje y comunicación y creatividad e imaginación. De esta manera, los TEA pasarían a tener un carácter continuo comenzando las primeras manifestaciones desde/en la primera infancia, a menudo, por observarse un desarrollo mermado, no acorde a su edad.

Los déficits en las habilidades sociales, en la comunicación, los intereses restringidos y repetitivos y la hipersensibilidad que muestran las personas con TEA son claros factores limitantes a la hora de desarrollar de manera satisfactoria su sexualidad. Hasta la fecha, la mayoría de las investigaciones sobre sexualidad parten de observaciones realizadas en varones con TEA, puesto que el perfil femenino, por lo general, suele mostrar los síntomas del TEA en menor intensidad, uno de los muchos posibles motivos por los que

se diagnostica con más frecuencia en niños que en niñas. Se observa que las mujeres con TEA constituyen un grupo minoritario dentro de un grupo minoritario.

Las personas con TEA tienen mayor dificultad en su maduración emocional, y, en muchos casos, se ve afectada su maduración social, sobre todo, en aquellas con síntomas más graves. Desde el punto de vista de algunos investigadores entre las personas con TEA se observan diferencias significativas en la maduración emocional y social en sus distintos géneros. Las mujeres con TEA, a menudo, suelen mostrar mejores habilidades sociales y mayor motivación social que los hombres con TEA, muestran menos dificultades para iniciar y mantener una relación romántica, comparten sus intereses con mayor facilidad, exponen estrategias de afrontamiento más avanzadas y menos conductas repetitivas, y, además, hacen uso de la imitación con intención de disimular o equilibrar sus dificultades personales y sociales. Asimismo, las mismas necesitan, en mayor medida, una estimulación sexual más intensa que los hombres con TEA para sentirse excitadas sexualmente posiblemente debido al mayor nivel de hiposensibilidades e hipersensibilidades. Los hombres con TEA, por su parte, muestran mayor interés en aspectos sobre sexualidad que las mujeres con TEA, aunque evidencian un comportamiento más restringido, repetitivo y estereotipado que las mujeres con TEA.

Cabe destacar que, por lo general, más hombres con TEA que mujeres con TEA experimentan síntomas de angustia, vergüenza, ansiedad e incomodidad con respecto a su propia sexualidad. Resulta imprescindible considerar especialmente estas últimas sensaciones en todas las personas con TEA independientemente de su género ya que suelen exteriorizarse con mayor sutileza que en la población general. En todo caso, las personas con TEA pueden tener mayor dificultad para interpretar y exteriorizar sus experiencias internas, y, por esta razón, en muchas ocasiones, las personas investigadoras difícilmente serán capaces de identificar dichas sensaciones, siendo los agentes educativos cercanos al entorno de la persona con TEA como, la familia o los/as profesionales de la escuela quienes los reconocerán. Aunque, teniendo en cuenta las características descritas en el caso de las mujeres con TEA, las mismas manifiestan mayor capacidad para ocultar y disimular tales síntomas pudiendo pasar desapercibidos.

Este colectivo, exterioriza mayor tolerancia hacia la homosexualidad o bisexualidad en comparación con la población normotípica, especialmente en mujeres con TEA, quienes suelen sentir una mayor angustia en el transcurso del desarrollo de su orientación sexual e identidad de género. En el caso de las mujeres con TEA identificadas como lesbianas, muestran mayor probabilidad de experimentar

situaciones sexuales más negativas o no deseadas que las mujeres con TEA heterosexuales.

En cuanto a la construcción de la identidad de género, de forma genérica se podría destacar que en este colectivo no suelen ser notorias las diferenciaciones en las características del género, como, por ejemplo, en el caso de las personas con un género masculino las características de liderazgo y competitividad son menores que en personas con un desarrollo normotípico y, en el caso de las mujeres, pueden no sentirse identificadas con los roles y normas tradicionales de género femenino desde la infancia, como, por ejemplo, mostrando una disminución en el juego típico del sexo y una mayor imitación a personajes masculinos.

Como se ha podido observar, existen diferencias notorias en los distintos géneros de las personas con TEA, al igual que sucede en la población general. Dado que esto tiene implicaciones distintas en la valoración e intervención ante el desarrollo de la sexualidad en los TEA, se deben fomentar estudios exhaustivos que permitan ofrecer orientaciones en los diseños de programas específicos de educación sexual teniendo en consideración el género de las mismas. De modo que, el estudio de los procesos de desarrollo de la sexualidad de este colectivo son una línea de investigación futura.

ELKARTU elkarte eta Rosa Ugalde Urbistondo. Desgaitasuna duten emakumeekin etengabeko lanean



Emakumea eta desgaitasuna gaitzat dituzten gure errealitate hurbileko esperientzien inguruan informazioa eskuratzen hasi ginenean etengabe azaltzen zitzaigun sarean Rosa Ugalderen izena. Are gehiago irakurri, are handiagoa zen bera ezagutzeko irrika eta horrelaxe adostu genuen berekin hitzordua. Rosa Ugalde Gizarte Langilea da, eta Genero Berdintasuna Masterra (UPV/EHU) ere badu.

Ikusmen urritasuna duten pertsonekin lan egin

du eta azken hamar urteetatik ELKARTU elkartearen jarduten du, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailean, eta egun, baita ere UPV/EHUko Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultateko irakasle elkartua da.

Generoa eta desgaitasuna txirikordatuta

Rosak bere ibilbidean kezka berezia izan du desgaitasuna duten emakumeekiko, eta haiekin batera egindako ikerketek eta eskutik eskura ELKARTU elkartearen egiten duen lanaren bidez ibilbide eta ezagutza sendoa ondo du. Esperientzia horretan oinarrituta baieztatzen du desgaitasuna duten emakumeek azpiratze egoera

ugariak jasaten dituztela. Esaterako, emakume hauek eremu pribatura alboratuak egoten dira eta etxeko zaintza lanetan aritzen dira, askotan zaintzaile "komodina" gisa identifikatuz. Era berean, bere ustez, emakume hauen familiek ez diete garrantzia ematen ikasketei eta oinarritzko ezagutzak lortzearekin konformatzen dira. Badira kasuak ere eskolara joatea debekatu zaienik bere egunean. Gaur eskolaratzea derrigorrezkoa denez errealitate hau ekiditu da. Halaber, desgaitasuna duten emakumeak ez dira gaitasuna duten emakume bezala sozialki ezagutzen. Adibidez, ez da pentsatzen bere kabuz bizi daitezkeen pertsonak izan daitezkeela. Sexualitatea guztiz ukatzen zaie, eta planifikazio familiarra ez da haiengana iristen; badirudi helburu bakarra dela hauek haurdun ez gelditzea, harreman sexualak badituzte. Rosaren ustez, ez zaie familia bat osatzeko gaitasun hori aitortzen nahiz eta bitzta osoan besteak zaintzen pasatzen duten. Desgaitasuna duten gizonetan, aldiz, familien aldetik egoten da halako pentsamendu bat adierazten duena bitzta guztirako babestuko duen bikotea aurkituko dutela.

Bikote bereizketak gertatzen direnean, prozesu oso zailak izaten dira, askotan bikote ohiak nahiago izaten baitu amari seme-alaben zaintza ukatu nahiz eta ordu arte bera izan den zaintzailea nagusia. Honela, adibidez, batzuetan lehentasun handiagoa ematen zaio haurrentzako harrera familia bat bilatzeari beraiek hazkuntzaz arduratzeari baino. Baina Rosaren iritziz garrantzitsua da ezagutaraztea zaintzak egiteko

gai direla, eta, uste du, ezin duten emakumeen kasuan aukera izan behar dutela adibidez laguntzaile pertsonala izateko eta bere bidez amatasuna aurrera eramateko, berak erabakiz nola nahi duen hau aurrera eraman.

Azkenik oso garrantzitsua da azpimarratzea, Rosaren ustez, indarkeria portzentaje altuak eta anitzak jasaten dituztela desgaitasuna duten emakumeek (bikotearengandik, bikote ohiarengandik, jatorrizko familiako kideengandik, zaintzalearengandik...). Emakume hauek zaintzak gaindituta aurkitzen direnean askotan onartu egiten dute haienganako indarkeria eta indarkeria hau normalizatu egiten da. Beraz, inportantea da kontzientzia garatzea honen inguruan. Bere ustetan, ez da esku hartze egokia egiten indarkeria jasaten duten eta desgaitasuna duten emakumeekin. Adibidez, zaintzalearen indarkeria jasaten duten emakumeak zaintza gabe geratzen direnean, proposatzen zaie egoitza batera eramatea, bere etxetik urrunduz eta bere bizitza autonomoa egiteko aukera murriztuz, eta hau ez da egokia, berriro biktimizatzen baita.

Ahalduntzea eta ahalduntze taldea Donostiako Emakumeen Etxean

Rosak Donostiako Emakumeen Etxean antolatzen dituzten ahalduntze taldeari buruzkoak azaldu dizkigu, baita ere. Emakumeen

Etxekoak gaiarekiko zuten kezkatik abiatuta ELKARTUrekin harremanetan jarri ziren emakumeentzako ahalduntze taldea osatzeko. Orduz geroztik, ostiraletan Rosak Donostiako Emakumeen Etxean Ahalduntze taldean parte hartzen du desgaitasun mota desberdinak dituzten hamabi emakume ingururekin. Bere ustetan ahalduntzeak zera esan nahi du; norberak bere burua ezagutzea, bere gaitasunak eta ahultasunak identifikatzea, eta azken haiek indartzeko, ezagutzeko eta aitortzeko prozesuak martxan jartzea. Prozesu hauek aktibatzeko Rosaren ustez oso garrantzitsua da espazio seguru eta errespetuzko bat sortzea non norbera libre sentituko den bere burua erakusteko eta nahi duen hori izateko. Bukatu gabeko prozesua da, etengabea, norberaren burujabetasuna lortze aldera eta hortik autoestimua eraikitze aldera.

Ahalduntze taldearen helburuak asko dira, baina partaideen autodeterminazioa lortzea da Rosaren ustez garrantzitsuena. Gidari gisa, aurrera eramaten duen metodologia dinamikoa da. Lehendabiziko gauza taldea sortzea izaten da, talde formala. Ondoren, babesa ematen duen laguntza talde bat eraiki nahi izaten du, besteekin egoteko eta espazio seguru baten baitan norbera den bezala azaltzeko, libre sentitzeko eta adierazteko. Baina banakako esparrua ere lantzen da, hau da, jarraipen indibidualizatu bat ere ematen da taldetik kanpo, bakoitzaren erritmoak eta momentuak errespetatuz.

Beraien egunerokotasunetik abiatuz, beraien kontakizuna hartzen da abiapuntutzat. Espazio seguru honetan batak besteekin esperientziak partekatzen dituzte, beti ere emakume bakoitzak bere bizipenak adierazteko erritmo ezberdinak errespetatuz. Honela, beraiei gertatzen zaiena identifikatzeko gaitasuna garatzen dute eta kontzientzia handitzeko eta beraien errealitateari erantzuteko beste modu batzuk daudela ikusteko aukera dute, estrategiak ikasteko bidea garatuz. Besteen esperientzietan errekonozituz erreparazioranzko bidea hasten dute.

Gai delikatuak azaltzen dira, eta tartean, kosta egiten da generoaren aldagaiaren gaiaz ohartaraztea, ez direlako kontziente generoak beraien errealitatean duen eraginaz. Beraz lehenengo lana izaten da generoari garrantzia ematea eta kontzientzia hori garatzea. Sexu eta genero aniztasunaren inguruko gaiak tratatzen ote diren galdetzean gaia ez dela askotan azaltzen aipatzen du, baina batzuetan hitz egin dute honetaz. Jadanik desgaitasuna izatea eta emakumea izatea azpiratze prozesuak bizitzeko arrazoi izaten bada, sexu eta genero aniztasunaren trataerak konplexuago bihurtzen du errealitate hau. Beraz oraindik eta gehiago egonkortzen da ikusezintasuna, eta ez da gizarteratzen. Gai hauek konfiantzazko harremanetara mugatzen dira, bakoitzak bere erreferenteak sortzen joaten diren heinean taldean. Batzuetan baliteke norbait izutzea eta taldea uztea. Erabakia errespetatzen da eta atek irekiak uzten zaizkio itzuli nahiko balu.

Ibilbide honetan, garrantzia ematen dio Rosak baita ere talde formaletik irten eta espazio informalean taldekideak esperientziak partekatzeari; adibidez, bazkari bat eginez, beste ekimen kulturaletara irtezez.... Hor eratzen joaten dira laguntza sareak eta ondorioz emakume horiek, beste egoera zehatzetan laguntza behar badute, sentitzen dute ahalduz taldeko kideekin kontak ezaketela. Beraz, parte hartzeko era desberdinak bultzatzen dira; informalak (kanpoko ekintzak) eta formalak (Emakumeen Etxeko taldea).

Rosak lorpenak ikusten ditu emakumeen segurtasunean eta gaitasunetan (laguntza eskatzeko, beraiek behar duten adierazteko, beraien bizitza eraikitze...) eta emakumea pixkanaka-pixkanaka ulertua eta entzuna sentitzen da. Gainera, iristen dira beraien gertakizunen inguruan bere buruaz farre egitera eta humorearen perspektiba garrantzitsua dela uste du, hau ahalduz zaren ezaugarri bat delako.

Generoa eta desgaitasuna politiketan eta feminismoan

ELKARTU elkarteak Berdintasun kontseiluan parte hartzen du eta lan egiten dute erabaki desberdinetan eragiten joateko, eta beraz beraien esku hartzea beharrezkoa dela kontsideratzen du izan desgaitasun politiketan, izan genero politiketan. Genero politiketan argi gelditzen da desgaitasuna ikusezina dela oraindik. Mugimendu feministarekin

dauden sinergiaz hitz egiterakoan, uste du oraindik zeregin asko dagoela egiteko. Desgaitasuna agendan sartzeko saiakera bat dagoela aitortzen du, baina oraindik mugimendu feministaren protagonistak ezaugarri oso zehatzak dituzten emakumeak direla uste du, eta gutxiagotutako kolektiboak oraindik ez dutela nahikoa aitortzarik. Honela, adibidez, batetik, aldarrikapenak egiterakoan manifestazioetan pankarten atzean joateari beste irtenbide bat eman behar zaiela uste du desgaitasuna duten emakumeak ere parte har dezaten. Bestetik, Mugimendu feministaren inguruko 2019. urteko jardunaldietan euren kolektiboak egindako ekarpenak aintzat hartu zirela dio baina ondoren zailtasun eta hesi askorekin aurkitu zirela dio; antolatutako egitarauan ezartzen diren denborak ez zetozen bat kolektibo honek behar zituenekin, eta espazio fisikoen egokitzapen ezarekin ere topo egin zuten. Honen inguruan, beraz, hausnarketa bat egin beharra dagoela uste du.

Eraldaketarako gakoak aipatu dizkigu amaitzeko; horien artean desgaitasuna duten emakumeen irudia aldatzea da gakoa, desgaitasuna ikasia den kontzeptua delako, generoa bezalaxe. Beraz, gizarteak duen irudi hori “desikasi” beharko litzatekeela iritzi du. Beharrezkoa da desgaitasuna duten emakumeak ezagutu nahi izateko joera piztea, pedagogia sortzea, sentsibilizazio prozesuak eraikitzea. Hain indibidualista den gizarte honetan bestearekiko espaziok ireki behar dira. Besteari espazioak eskaini behar zaizkio.

ELKARTUK eta Rosak, horretan jarduten dute, eta jarraitzeko asmoa daukate. Horien adibide dira azken urteetan argitaratu dituzten hezkuntza baliabideak hain justu ezagutza eta gerturatze prozesuak garatzeko, bi norabideetan desgaitasuna eta emakume taldea gisa.

Hezkuntza baliabideak

- **ELKARTU** (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea): <https://elkartu.org/argitalpenak>
- **ELKARTEAN** (Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea): <https://elkartean.org/argitalpenak>

Hezkuntza baliabideak aniztasun funtzionalari buruz

EMAKUMEA ETA DES-GAITASUNA (ELKARTEAN, d.g.)



Euskadiko desgaitasun fisikoa duten pertsonen koordinatzailea da gida honen egilea, ELKARTEAN, hain zuzen ere. Gida honetan desgaitasuna duten emakume eta neskatoen eskubide berdintasuna eta diskriminazio eza sustatzen duen dokumentua da. Bertan berdintasuna lortzeko gizartea nola eraldatu behar den, eta koordinatzaileak zertan lan egiten duen azaltzen da, desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskek diskriminazioa jasateko arriskua handituaren inguruan hausnartzen da, desberdinkeria eragiten duten faktore sozialak zehazten dira eta, azkenik, desgaitasun fisikoa duten emakume eta neskatoen eskubide-berdintasunerako eta eskubideak bermatzeko ELKARTEAN erakundearen jarrera eta proposamenak azaltzen dira.

<https://elkartean.org/pdf/berdintasun-gida-emakumea-eta-desgaitasuna.pdf>

Recursos educativos sobre la diversidad funcional

MUJER Y DIS-CAPACIDAD (ELKARTEAN, s.f.)



ELKARTEAN, Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Euskadi, es quien ha publicado esta guía con el objetivo de promover un documento por la igualdad de derechos y no discriminación de las mujeres y niñas con discapacidad. En este documento se explica cómo debe transformarse la sociedad para lograr la igualdad y en qué trabaja la coordinadora; a su vez, se reflexiona sobre el mayor riesgo de discriminación de las mujeres y niñas con discapacidad física y se determinan los factores sociales que provocan dicha desigualdad y, por último, se exponen las actitudes y propuestas de ELKARTEAN para la igualdad y garantía de derechos de las mujeres y niñas con discapacidad física.

<https://elkartean.org/pdf/guia-igualdad-mujer-y-discapacidad.pdf>

El Método Arrieta (Gil-Munárriz, 2013)

Lourdes eta Mentxu Arrieta ahizpen egunerokoa aurkezten digu dokumentalak. Ahizpa horiek, jaiotzetik sufritzen dute nahasmendu bitxi bat, larriki eragiten diena beren mugitzeko eta hitz egiteko ahalmenei. Biek sortu dute berezko hizkuntza bat begien mugimenduaren bidez, eta horrek balio izan die haien artean eta kanpoko munduarekin komunikatzeko.




El documental nos presenta el día a día de las hermanas Lourdes y Mentxu Arrieta, quienes padecen desde su nacimiento un extraño trastorno que les afecta gravemente a sus facultades motoras y de habla. Ambas han creado un lenguaje propio mediante el movimiento de los ojos que les ha servido para comunicarse entre ellas y con el mundo exterior.

<https://www.elmetodoarrietafilm.com>

Diversidad funcional física y sexualidad (Arrieta-Ormazabal, 2010)

Mentxu Arrietak idatzitako liburu honek desgaitasun fisiko orokorraren inguruko ibilbide historikoa egiten du, ondoren, Espainian zentratuz. Gerora, desgaitasun fisikoa duten pertsonen sexu-heziketaren zein sexualitatearen inguruko mitoei buruz hitz egiten du, eta, azkenik, desgaitasun fisikoa duten pertsonen zenbait testigantza jasotzen ditu.



Este libro escrito por Mentxu Arrieta hace un recorrido histórico sobre la discapacidad física general y en España. Después habla sobre los mitos de la sexualidad y de la educación sexual de las personas con discapacidad física y, finalmente, recoge algunos testimonios de personas con discapacidad física.

<https://www.sexologiaenincisex.com/extractos-de-la-revista-espanola-de-sexologia/diversidad-funcional-fisica-y-sexualidad>

Aniztasun Sexuala eta Funtzionala / Diversidad Sexual y Funcional (GEHITU, 2019)

GEHITU Donostiako LGTBI+ elkarte da, eta hiru hilean behin aldizkari bat egiten du. 2019ko abenduko edizioa aniztasun funtzionalera eta sexu-aniztasunera bideratuta zegoen. Aldizkaria hainbat pertsonen idatzitako artikuluz osatuta dago, hala nola, testigantzak, elkarrizketak, aipamenak edo berriak.




GEHITU es una asociación LGTBI+ de Donostia la cual hace una revista cada 3 meses. La edición de diciembre de 2019 fué enfocada a la diversidad funcional y la diversidad sexual. La revista consta de diferentes artículos escritos por distintas personas como, por ejemplo, testimonios, entrevistas, reseñas o noticias.

<https://drive.google.com/file/d/1XfVgyS9gJl9tAbnPr-OpE4AAsMZ-cRG0/view>


Yes, we fuck! (Centeno & De-la-Morena, 2015)

Aniztasun funtzionala duten pertsonen sexualitateak lantzen dituen dokumentala da, sei pertsonen bizipen pertsonalen edo istorioen bitartez. Proiektu honetan jendeak parte hartzen du, hitz egiten du eta, batez ere, patriarkatua, binarismoa, zisteterosexismoa eta kapazitismoa zalantzan jartzen ditu.




Documental que trata las sexualidades en personas con diversidad funcional a través de seis historias reales. Es un proyecto donde la gente participa, dialoga y, sobre todo, cuestiona el patriarcado, el binarismo, el cisheterosexismo y el capacitismo.

<https://www.yeswefuck.org>

Sexu- eta genero- aniztasunetik eskubide sexual eta ez-normatiboak eraikitzen (Aldarte, 2019)

Hamaika fitxez osatutako unitate didaktikoa da hau (sexu eskubide bakoitzeko fitxa bat), eta sexu-eskubideak eremu ezberdinetan (LGTBI+ kolektiboan, jendartean eta hezkuntzan) lantzea helburu duen. Horrez gain, sexualitate ez normatiboekin lotura duten eskubideak ezagutzera eman nahi ditu, gaiaren inguruko hausnarketa sustatuz.

https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/UNIDAD-DIDACTICA_EUS-FINAL.pdf

Construyendo unos derechos sexuales no normativos desde la diversidad sexual y de género (Aldarte, 2019)

Se trata de una unidad didáctica compuesta por once fichas (una ficha por cada derecho sexual) cuyo objetivo es trabajar los derechos sexuales en diferentes ámbitos (colectivo LGTBI+, sociedad y educación). Además, pretende dar a conocer los derechos relacionados con las sexualidades no normativas, fomentando la reflexión sobre el tema.

https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/UNIDAD-DIDACTICA_CAS-FINAL.pdf



“Sexu- eta genero- aniztasunetik eskubide sexual eta ez-normatiboak eraikitzen” liburu grafiko bat da, zeinak sexu eskubideak ikuspegi ez normatibo batetik lantzen dituen, eskubide bakoitzaren esanahia argituz, osotara gaur egungo 11 eskubide sexualak landuz (Aldarte, 2019).

“Construyendo unos derechos sexuales no normativos desde la diversidad sexual y de género” es un libro gráfico que aborda los derechos sexuales desde una perspectiva no normativa, clarificando el significado de cada derecho sexual y trabajando en conjunto los 11 derechos sexuales de hoy en día (Aldarte, 2019).

https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/DDSS-FINAL_EUS.pdf

https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/DDSS-FINAL_CAS.pdf

Declaración de los Derechos Sexuales (World Association for Sexual Health, 2014)

Dokumentu honetan, Sexu Osasunerako Munduko Elkarteak alde batetik, sexualitatearekin lotutako 16 eskubide sexualak jasotzen ditu, eta, bestetik, eskubide horiek bermatzeko elkarteak dituen helburuak eta baieztapenak aipatzen ditu.




En este documento la Asociación Mundial para la Salud Sexual recoge, por un lado, los 16 derechos sexuales, los cuales son derechos humanos relacionados con la sexualidad y, por otro lado, los objetivos y afirmaciones por las que se guía la asociación para garantizarlos.

https://worldsexualhealth.net/wp-content/uploads/2013/08/declaracion_derechos_sexuales_sep03_2014.pdf

Guía sobre violencia y mujer con discapacidad (Proyecto METIS, 1997-1998)

Gida honek indarkeria ematen ote den identifikatzeko adierazleak eskaintzen dizkie profesionalari. Honen helburua interbentzioaren hobekuntza aktibatzea da. Eguneraketa prozesuan daude.



Esta guía ofrece a los profesionales indicadores de identificación de la violencia. Su objetivo es activar la mejora de la intervención. Están en proceso de actualización.

https://worldinstituteondisabilityblog.files.wordpress.com/2015/11/guia_metis.pdf



INDARKERIA MATXISTARI ETA
DESGAITASUN FISIKOAK DUTEN
EMAKUMEEI BURUZKO
gidaliburua



METIS GIDALIBURUAREN FIDELAGIAZ
INDARKERIA MATXISTARI ETA
DESGAITASUN FISIKOAK DUTEN
EMAKUMEEI BURUZKO
gidaliburua

Indarkeria matxistari eta desgaitasun fisikoa duten emakumeei buruzko gidaliburua

(ELKARTEAN, 2021). METIS proiektuko indarkeriari eta desgaitasuna duen emakumeari buruzko gidaliburua eguneratzeko ariketa bat da. Lehen gidaliburu hori sortu zen emakumeei, beren burua eskubide-subjektu gisa onartzen laguntzeko eta tratatu txarren egoerak identifika zitzaten; eta profesionalei, ezagutza-tresnatzat erabil zezaten.

ELKARTEANeko Emakume Taldeak eguneratu du gidaliburua, urrats bat harago joateko asmoz; tresna hori eguneratzeaz gain, gidaliburu honek desgaitasun fisikoa duten eta indarkeria matxistako egoerak bizi dituzten emakumeei esku-hartzea hobetu nahi du.

<https://elkartean.org/pdf/indarkeria-matxista-gida.pdf>



guía sobre
VIOLENCIA MACHISTA Y
MUJERES CON DISCAPACIDAD
FÍSICA



ACTUALIZACIÓN DE LA GUÍA METIS
SOBRE VIOLENCIA MACHISTA Y MUJERES
CON DISCAPACIDAD FÍSICA

Guía sobre violencia machista y mujeres con discapacidad física

(ELKARTEAN, 2021). Es un ejercicio de actualización de la guía sobre violencia y mujer con discapacidad del proyecto METIS. Esta primera guía se creó para ayudar a las mujeres a reconocerse como sujetos de derechos e identificar situaciones de maltrato; y a los/as profesionales, a utilizarlo como herramienta de conocimiento. El

Grupo de Mujeres de ELKARTEAN ha actualizado la guía con el objetivo de ir un paso más allá; además de actualizar esta herramienta, esta guía pretende mejorar la intervención con mujeres con discapacidad física que viven situaciones de violencia machista.

<https://elkartean.org/pdf/guia-violencia-machista.pdf>



Desgaitasuna duten emakumeen aurkako biolentzia matxistaren semaforoa

(ELKARTEAN, d.g.). Baliabide honek halako adierazleak eskaintzen ditu desgaitasuna duten emakumeentzat indarkeria egoerak identifikatzeko.

<https://elkartean.org/pdf/desgaitasuna-duten-emakumeen-aurkako-biolentzia-matxistaren-semaforoa.pdf>



Semaforo sobre violencia machista contra las mujeres con discapacidad

(ELKARTEAN, s.f.). Este recurso ofrece este tipo de indicadores para identificar situaciones de violencia contra las mujeres con discapacidad.

<https://elkartean.org/pdf/semaforo-sobre-violencia-machista-contra-las-mujeres-con-discapacidad.pdf>

SAL-PICA (SalPica, 2020)


SAL-PICA, Frederique Bangerter artista eta editoreak Abeyamí Ortega diziplinarteko akademikoaren aholkularitza eta lankidetzarekin egindako ikerketa lanaren emaitza da. Hau eduki ezberdinetarako sarbidea errazten duen datu-basea da, hala nola, feminismoak, arrazakeriaren aurkako edukiak, ikuspegi dekoloniala, interseksionalitatea, pribilegio/zapalkuntza sistemaren desagitea eta queer pentsamendua, beste batzuen artean. Datu-basearen helburua ikuspegi kritikoa sustatzea zein justizia soziala lortzeko hausnarketarako eta ekintzarako tresnak eskaintzea izanik.

<https://www.salpica.es>

SAL-PICA es el resultado del trabajo de investigación realizado por la artista y editora Frederique Bangerter con el asesoramiento y colaboración de la académica interdisciplinar Abeyamí Ortega. Esta es una base de datos que facilita el acceso a contenidos tan diversos como el feminismo, contenidos antirracistas, visión decolonial, interseccionalidad, desmantelamiento del sistema privilegio/opresión y pensamiento queer, entre otros. Siendo su objetivo promover una visión crítica y ofrecer herramientas de reflexión y acción para lograr la justicia social.

<https://www.salpica.es>